

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2019ko APIRILA


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduerak % 0,6 egin du gora 2019ko apirilean

Industria-produkzioaren indizeak % 0,1eko hazkundera metatu du 2019ko lehen lauhilekoan

2019ko apirilean, % 0,6 igo da Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa 2018. urteko hilabete berdinaren aldean laneko egutegiko baldintza homogeneotan, Eustatek ondutako datuen arabera. 2019ko lehen lau hilabeteen balantzea % 0,1 hazi da 2018. urteko aldi berdinaren aldean.

Aurreko hilabetearekin, 2019ko martxoarekin, alderatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 1,7 igo da urtaroko efektuak zuzendutakoan.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko apirilarekiko, 2019ko apirileko indizeak bilakaera desberdinak izan ditu industria-sektore handien artean. *Energia* % 2,7 igo da, *Bitarteko Ondasunak* % 1,0 igo dira; aldiz, *Ekipo Ondasunak* % 3,8 jaitsi dira. *Kontsumo Ondasunak*, multzoan, % 3,9 igo dira. Horien artean, *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunak* % 5,5 igo dira, eta *Kontsumo Ez-iraunkorrekoak*, berriz, % 3,6.

Hilabete arteko aldakuntzan ere, emaitzak desberdinak dira industria-sektore handietarako 2019ko apirilean 2019ko martxoarekiko. *Bitarteko Ondasunak* % 2,3 igo dira; *Ekipo Ondasunak* % 0,6 igo dira, baina *Energia* % 1,4 jaitsi da. *Kontsumo Ondasunak*, multzoan, % 3,6 hazi dira, *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunak* % 8,4 eta *Kontsumo Ez-iraunkorreko Ondasunak* % 2,6 handitu direlako.

EAEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2019ko apirilean, urte arteko aldakuntzetan hazkunde handienak izan dituztenak ondorengoak dira: *Material eta tresneria elektrikoak* urte arteko % 14,0 igoera izan dute; *Makineria eta tresneriak* % 5,4ko igoera izan du, eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriek, berriz*, % 4,8ko hazkundea.

Kontrako aldean, *Garraio-materialaren* sektorean zein *Metalurgia eta produktu metalikoak* sektoreetan % 11,3 eta % 1,9ko jaitsierak gertatu dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-1,9
16 - Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	2,3
09 - Kautxua eta plastikoak	2,5
13 - Makineria eta tresneria	5,4
14 - Garraio-materiala	-11,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	4,8
12 - Material eta tresneria elektrikoak	14,0
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	3,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoka, Industria Produkzioaren Indizearen apirileko urte arteko bilakaerak joera positiboa izan du Bizkaian eta Gipuzkoan: % 4,3 eta % 2,4 igo dira, hurrenez hurren. Aldiz, Araban % 8,1 jaitsi da.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Apirila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Api2019 / Api2018	A(Api2019) / A(Api2018)(*)	Api2019 / Mar2019	Mar2019 / Ots2019
Indize orokorra				
Euskal AE	0,6	0,1	1,7	-3,0
Araba/Álava	-8,1	-4,9	-0,5	-3,1
Bizkaia	4,3	3,0	3,2	-3,0
Gipuzkoa	2,4	0,5	1,6	-3,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	3,9	3,0	3,6	-4,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	5,5	-2,4	8,4	-4,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,6	4,4	2,6	-4,1
Ekipo-ondasunak	-3,8	0,2	0,6	-5,3
Bitarteko ondasunak	1,0	-0,7	2,3	-2,0
Energia	2,7	0,6	-1,4	-0,3

(*) 2019ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62